



## LH-3. MAILA 1. UNITATE DIDAKTIKOA "Zainketa"



### LH3-1UD.ZAINKETA: IRIZPIDE ETA JARRAIBIDEAK



Zaintza faktore erabakigarria da mundua eraikitzeko, norbere buruaren zaintza, beste batzuen, harremanena, naturarena... Baina nola antolatzen da zaintza? Nork egiten du zer? Balioesten da ala ez? Zein balioesten da eta zein ez?

KONTZEPTU NAGUSIAK	BEHAKETA - AZTERKETA	ONDORIOAK - IKASKETA
<p><b>1. Tradizionalki emakumeek egindako zaintzak ezagutu, aztertu eta balioa eman:</b> pertsonei lotutakoa, etxeko zaintza, eguneroko zaintza... Duten balioa eta garrantzia aitortu, ez gutxietsi. Gizonek ere zaintza hauek egiten ikas eta egin ditzaten.</p> <p><b>Tradizionalki gizonek egindako zaintzak ezagutu, aztertu eta balioa eman:</b> kaleko zaintza, larrialdiak, egoera arriskutsu eta segurtasunarekin lotutakoak... Duten balioa eta garrantzia eman, ez handietsi. Emakumeek ere zaintza hauek egiten ikas eta egin ditzaten.</p>	<p><b>1. Zainketa mota guztiak ezagutu, aztertu eta balioa eman.</b> Zaintza mota asko dago bizitzaren esparruetan. Ikasleek guztiak ezagutzen dituzte? Zeintzuk ez? Nork egiten dituenak? Ordaintzen direnak? Ordaintzen ez direnak? Egunerokoak direnak? Noizbehinkakoak direnak?</p> <p>Zein zainketa mota identifikatu dituzte? Gehien bat emakumeek eginikoak? Gehien bat gizonek eginikoak? Nolakoak dira zaintza horiek? Ordaintzen dira? Lanpostuak dira? Etxeko lanak dira? Balio bera dute gure gizartean? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Zainketa mota guztiei duten balioa eman.</b> Ez gutxietsi emakumeek egiten dituztenak eta ordaintzen ez direnak. Ez handietsi gizonek egiten dituztenak eta ordaindu egiten direnak. Balioa eman oinarritzoei, lehentasunei, guztiz beharrezkoak direnei.</p> <p>→ <b>Balioa eta garrantzia eman zainketari eta zainketa egiten duten pertsonei, ez dago lan edo jardun garrantzitsuagorik.</b> Elkar zaintzeak egiten gaitu pertsona. Elkarren ardura eta zainketa da familian eta gizartean bizitzea. Zaintzak gizarteratzen gaitu.</p>
<p><b>2. Zainketa batzuk beste batzuk ahalbidetzen dituzte, beste batzuen oinarrian daude.</b> Adibidez, nork bere burua zaindu gabe, ezin besteak zaindu. Eta etxeko zainketarik gabe, ezin gizartearen zainketa egin. Beraz, piramide baten harrien modura, oinarritzko zaintzek lehentasuna dute.</p>	<p><b>2. Zaintza guztiak dira beharrezkoak, baina lehentasunak daude.</b> Ikasleek ondo identifikatu dituzte oinarritzko zainketak? Berdin sailkatu dituzte? Neskek zein mutilek antzeko sailkapena egin dute? Ezberdintasunak badaude, zeintzuk? Zergatik? Adostu daitezke?</p>	<p>→ <b>Nork bere zaintzaz arduratu behar du gizaki autonomoa izateko.</b> Lehen zaintza, oinarritzko zaintza, norberaren zaintza da.</p> <p>→ <b>Zainketa guztion ardura da.</b> Zaintzaren piramidea denon artean eraiki behar dugu. Zaintza gizartearen muina eta ardatza da. Zainketarik gabe ez dago gizarterik, ez dago gizatasunik.</p>
<p><b>3. Zaintza eginez eta ekinez ikasten da, ez dago zaintzeko gene bat, berezko berezi bat.</b> Inor ez da jaio zaintzen jakinda. Ezta zaintzeko zailtasun eta ezinezko berezi batekin. Edonork ikas eta egin dezakeen zerbait da.</p>	<p><b>3. Edonork ikas dezake zaintzen. Denon ardura da.</b> Genero aurreiritziak, estereotipoak eta rolak identifikatu daitezke ikasleek aukeratu dituzten esaldietan? Neskek zein mutilek berdin erantzun dute? Ezberdintasunak daude? Zeintzuk? Zergatik?</p>	<p>→ <b>Zainketa eginez ikasten da.</b> Ikusiz eta ikasiz, eginez eta ekinez, antolatuz eta prestatuz, hartu eta emanez, partekatuz eta erantzunkidetasunez.</p>

→ Elkarren arteko zainketa guztion ardura da. Guztion artean egin behar dugu.